

## GATAZKEK IRAKATSI DIDATE

**Nola sentitzen naiz gatazka baten aurrean?<sup>1</sup>**

Dinamika honen helburua da ikasleek identifikatzea haien artean izaten diren gatazkak eta irtenbideak bilatzen ikastea.

Bestaldetik, gogoeta egingo da gatazken konponbideei eta irtenbideei buruz, ikusteko zein irtenbide den egokia eta zein ez hainbeste.

Gelan, antzeppen bat egingo da bi lagunekin; borrokan dabiltzalako itxura egin behar dute (tokia lortzeagatik egingo dute borroka); bata bere lagunekin saskibaloian ibili nahi du, eta besteari ez dio jolastokian futboleaz jokatzeko uzten. Nahi dutena antzez dezakete: bata besteari iseka egin diezaiokete betaurrekoak dituelako edo ukondo-urratzaile hutsa delako, eta abar.

Garrantzizkoa da parte-hartzaileei esatea beren burua aktore gisa irudikatu behar dutela, eta, gelako gainerakoek jakin gabe, haserre-itxurak egitea eskatuko zaie.

Gainerako gelakideek, begirale gisa egonik, honako galdera hauei erantzun beharko diete:

- ✓ Zein da arazoa?
- ✓ Zer sentitu duzu?
- ✓ Zergatik haserretu zara?
- ✓ Zergatik esan diozu esandako hura? (Hau bi alderdikoei)
- ✓ Nola esan zeniezaiokeen esan diozun hori baina haserretu gabe?
- ✓ Zer egin zenezakeen beste modu batera?
- ✓ Marraztu itzazu irtenbide baketsuak.

Antzerkitxoa eginez bukatzen da ariketa (antzezleak alda daitezke), norabide berria praktikan jarritz (elkar mindu gabe eta oldarkorrek ez diren irtenbideak martxan jarrita).

Jarduera bukatutakoan egiaztatuko da ea jarrera bortitzen eta ez-bortitzen arteko bereizketa erraz egiten duten ikasleek, eta modu ez-bortitzean jokatzeko samurra gertatzen zaien.

---

<sup>1</sup> Gizagune Fundazioa. Unitate Didaktikoa Elkargunea (3. Ziklorako). Moldatua.